Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4082

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 8koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko dei publikoa egiteko dena.

Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritzan hutsik dago goi-kargudunaren idazkari lanpostua (520010 kodea, 119 dotazio zenbakia). Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c artikuluan xedatutakoaren arabera (1989ko uztailaren 28ko EHAA) eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, sail honek ebazpen honen eranskinean jasotako lanpostua izendapen askez betetzeko deia egitea erabaki du. Hona hemen oinarriak:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen bitartez deitutako lanpostu honetara, ezarri zaizkion baldintzak (ebazpen honen eranskinean agertzen dira) betetzen dituzten karrerako funtzionarioak aurkeztu daitezke.

Bigarrena.– Interesdunek Lehendakaritzako Zerbitzu Zuzendaritzara bidaliko dute eskaera eta, bertan, datu pertsonalak eta betetzen ari den lanpostua adieraziko dituzte. Bestalde, eskaera aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Izangaiek eskaerarekin batera curriculuma igorri behar dute eta bertan honako hauek adierazi:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan bete dituzten lanpostuak.

c) Egindako ikasketen eta ikastaroen berri, dakizkiten hizkuntzak eta, oro har, izangaien ustez adierazgarri izan daitezken bestelako merituak.

Horrez gain, lanpostua betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa eta adierazitako merituen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte; halaber, egoki iritziz gero, nahi

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

4082

RESOLUCIÓN de 8 de julio de 2009, del Secretario General de la Presidencia, por la que se anuncia la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

Estando vacante un puesto de Secretario/a de Alto Cargo, código 520010, dotación 119, en la Dirección de Prensa y Comunicación, conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.c de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Departamento acuerda anunciar la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo de la presente Resolución con arreglo a las siguientes,

BASES

Primera.– El puesto de trabajo que se convoca a través de la presente Resolución podrá ser solicitado por el personal funcionario de carrera que reúnan los requisitos para el desempeño del mismo establecido en el anexo a la presente Resolución.

Segunda.– Los/as interesados/as dirigirán sus solicitudes en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Dirección de Servicios de la Presidencia del Gobierno, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercera.– Los aspirantes deberán acompañar a su escrito un «curriculum vitae» en el que harán constar:

a) Títulos académicos.

b) Puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como, en su caso, en la empresa privada.

c) Estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estime el aspirante oportuno manifestar.

A la citada solicitud los aspirantes deberán adjuntar, además, la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Asimismo, los aspirantes podrán acompañar cuantas publicaciones,

beste argitalpen, txosten edo beste edozein dokumentu ere aurkeztu ahalko dute.

Laugarrena.– Deialdi hau Lehendakaritzako idazkari nagusiak ebatziko du. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko gehienezko epean.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 8a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Cuarta.– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución del Secretario General de la Presidencia, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Contra la presente Resolución de convocatoria, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiere dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Resolución en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2009.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostua:

– Izena: Goi-kargudunaren idazkaria.

– Kodea: 520010, dotazio zenbakia 119.

– Lantokia: Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza.

– Lantokiaren udalerria: Vitoria-Gasteiz.

– Kidegoa: C/D.

– Berariazko osagarria: VI-A.

– Hizkuntza-eskakizuna: 2; derrigortasun-data 2008-10-31.

Lanpostuaren betekizunak:

– C1 edo D1 kidegoko karrerako funtzionario izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren karrerako funtzionarioa izatea eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzian egotea.

– Era berean, parte har dezakete, zerbitzu aktibora itzuliz prozedura honen bidez, derrigorrezko eszedentzian daudenak, beste administrazio publiko batzuetan ari direnak eta egitekotik baztertuak eta borondatezko eszedentzian daudenak -azken hauek gutxieneko epea bete badute-.

ANEXO

Puesto de trabajo convocado:

– Denominación: Secretario/a de Alto Cargo.

– Código: 520010, dotación 119.

– Localización: Dirección de Prensa y Comunicación.

– Localidad de destino: Vitoria-Gasteiz.

– Cuerpo: C/D.

–Complemento específico: VI-A.

– Perfil Lingüístico: 2, fecha de preceptividad 31-10-2008.

Requisitos para su provisión:

– Ser funcionario/a de carrera perteneciente a los cuerpos C1 o D1.

– Hallarse en situación de servicio activo, servicios especiales o excedencia por cuidado de hijos, como funcionario/a de carrera en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Asimismo, podrán concurrir, reingresando al servicio activo a través de este procedimiento, el personal funcionario de carrera perteneciente a los Cuerpos antes citados, que se encuentren en situación de excedencia forzosa, en servicio en otras Administraciones Públicas y los suspensos y excedentes voluntarios, siempre que hubieran cumplido el tiempo de permanencia establecido para tales situaciones.

– Urtebeteko esperientzia administrarien kidegoan edo 2 urtekoa administrari laguntzaileenean.

– 1 año de experiencia en el desempeño de tareas propias del Cuerpo Administrativo o 2 en el de Auxiliar administrativo.